


Armiarmaren moduko robota

Armiarma-robota dela esan daiteke Tokyo Gas Co. eta Hitachi etxe-ek gas-depositoak aztertzeke prestatu dutena. Gas-ihesak detektatzen ditu eta lana pertsonak baino azkarrago egiten omen du. Bentosaz hornitutako bere



Armiarmaren moduko robota. Gas-ihesak detektatzen ditu eta lana pertsonak baino azkarrago egiten omen du.

zortzi hankei esker, minutuko metroa desplazatu daiteke. Depositoan soldadurak eta pitzadurak izateko arrisku handiena duten alderdiak arakutzen ditu.

Fotokopiak kontrolatuz

ABS electronics enpresa britainiarrak fotokopiagailuen kopia-kopurua kontrolatzeko sistema

bat hobetu du. Etxe honek 20 urteko eskarmentua du lan horretan.

Kontrol-sistemak uni-bertsitate, irakaskuntza eta administrazio-zentruetan jartzeko oso egokiak dira. Kopia-kopurua kontrolatzeko eta kobratzeko aukera eskaintzen dute. Sistemok ia makina gehienetan erabil daitezke eta kopia-kopurua zenbatzeaz gain, mugatzea ere posible da.

Easycard 2000 sistema berri honetan alde aurretik kreditu jakina duten txartelak erosi egin behar dira. Erabilzaileak txartela makinaren kontrolagailura sartu eta duen kredituaren araberako kopia egin ahal izango ditu. Sistemak telefono-txartelen moduan egiten du lan. Sistema honek, bi gauza baztertzen ditu: langile bat makinaren kargu izatea eta diru bidezko kobraketak.

Mila eta bostehun kilometro baino gehiago

Hain zuzen 1.573,6 kilometro egin ditu litro bat gasolina kontsumituta Micro Joule izeneko ibilgailuak. Marathon Shell izeneko hamargarren ekitaldian parte hartu du Britainiako Nantes hirian Saint-Joseph La Joliverie eskolako ikasleek egindako automo-



1.573,6 kilometro egin ditu litro bat gasolina kontsumituta Micro Joule izeneko ibilgailuak. Hamar urtean zortzi aldiz ondu du marka, eta orainoan 100 kilometrotan 0,0635 litro besterik ez ditu gastatu.

bilak. Hamar urtean zortzi aldiz ondu du marka, eta orainoan 100 kilometrotan 0,0635 litro besterik ez ditu gastatu.

Dena den, aurten beste marka batzuk ere hautsi dira. 95 ibilgailuk parte hartu dute eta hiruk pasatu dute 1.000 kilometroko distantzia.

Datu-autopista azkartuz

AT&T konpainia estatubatuarrek itsasazpiko kable optiko baten bidez, informazioa orain arte baino 4 bider azkarrago bildatzea lortu berri du. Florida eta Irla Birjinen arteko 2.000 km-ko distantzia lotzen dituen kablea erabili dute horretarako. Trasmisio-abiadura azkartzea, seinalea elektronikoki aplikatu beharrean optikoki aplikatu dutelako erdietsi da.

Gaur egungo zuntz optikozko kable komertzial azkarrenek 2.500 milioi bit segundoko transmititzen dute, baina bideofonozko zerbitzuak garatzen diren heinean beren ahalmena handiagotu egin beharko da. Horretarako AT&Tren sistema berria; segundoko 10.000 milioi bit transmititzeko gai baita.

AT&Tren kablea guztiz prest egongo denean, 1995eko urtarrilean gutxi gora-behera, EEBB, Mexiko, Italia, Espainia eta Portugal lotuko ditu. Hala ere, ez du abiadurarik handiengan lan egingo, bezeroek oraindik behar ez dutelako.

